

## CRISTOPHORO COLOMBO.<sup>1</sup>



Arkitzen zan gizon bat illunabar batean bere aldamenian zeukela mutill koškor bat, iširita leyo baten parean, eta ondoan agertzen zitzaizkan maya eta liburu batzuek gañian nastuan.

Leyo artatikan begiratzen zuen batzuetan zeru aldera, eta bestian urrutirá, bere burua erabilliaz, zerbait pentsamentuk senti arazi azten dubenian bezela.

Gizon onen arpegiak adiarazten zuben zerbait, asmo aundienbat zebilela bere zentzuan; bakarrik, izketan bezela abiatzen zan bere burua eutsiaz eskuen tartean, noski buru galtze arrek adiarazten zion gauzaren gatikan.

—A!—zion—zer munduan bizi geran, ni, onenbeste urteko gora-beren gauzetan nabill eta geyenak naukate choro baldin banitzakien añian!

Ontan, eguzkiya banatzen zan, an!..... urrutiyen! eta zutik jarririk gizon ura zion berriz ere itz penatuaren artean:—Ukatu neri! Ukatu neri, or dijoan eguzki orren errañubak orain argit-zera dijoaztela gure beste aldean dauden bazterrak!.... A! Jaungoikoa...!!

Au zan Kolon, zegona bere seme gaztiaren laguntza bakarran.



Udako bero kiškalmenean, eta mendi bide baten bakartasun išillean, dijoa gizon bat geldi geldi ibilliaz, bere atzetik dijoala

(1) Trabajo señalado con *mencion honorífica* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1892.

aur bat doi eta mantso; beren ibillerak diyote daudela nekatuak eta flaki pean.

Gizon arren begi erneak zerbait aundi diyote, jantzi zarraren pean estaltzenda bere gorputza; aita semeak dira, bafian gizon arri, bere arlotetasunean diz-dizatzen zayo alako ernaitasunaren aunditasuna. Zein ote dira? Ez da beste inon azaltzen bide izugarri artan. Ontan egun erdiaren ezkill otsa aditzen da inguruko eliz-enbategitik, eta aita seme ayek zerura begiratuaz eskeintzen diyote beren otoitza umilki eta fede aundiarekin.

Isiritzen dira arri batzuen gañian eta gizonak artzendu belaunetan aurra laztanduaz eta bere kolkoaren tartera buruchoa botiaz. Al gizagajoa, guztiz penagarriak azaltzen dira igaro eziñik bidea, flakitasunaren mendean daudelako.

Alchaturikan artzen dute aldamenian agertzen dan konbentu bidea malda goran abiatuaz.

Izarditan plei, jotzen du konbentu arren atian, eta jotzen du berriz eta beste bein ere, isiriaz beko koskan; ez diyo itzik egiten bere semechoari, baizik begiratzen dio ziarka ikusi naiean dakarren atsekabea..... ¡Konbentuko atia irikitzen da, azaldurik anai bat esanikan:—Jaungoikoa izan dedilla zubekin.—Baita zubekin ere eche santu ontan—eranzun zion gure gizonak se-giran.

—Anai, emango bazenioke aur oni ogi piška bat, ori izango litzake nere alaitasun aundienetako bat.

—Baita bear dezun guzi guzia ere gure Jaun aundiaren on-ran—eranzun zion fraile dontsu arrek.

—Berak adituko altzaitu beti, anai ona!—esan zion gizonak.

Eta sarri ziran igarorik barrenara, nun arkitu zuten lekua beren atsekabeen naigabeak eztitzeko.

¿Zein zan gizon ura? Ura zan Kolon, zebilela erriz erri bere semearekin laguntz aundienbaten billa.



Batzarrean bildurik daude Españaiko uri batean bertako jakinsu erneenak, bakoitzak bere usteak ematen, besteak adiarazitzen, batek dio gauza bat, besteak bestia, batzuek au dala,

besteak ura dala, beste batek diyo zerbait leikela bañan guziz zalla dala, eta beiratuak eta itz bideak baten kontra bakarrik dijoaz, eta bat au dago denaren erdian umilki bañan sendo, guztientzat baditu eranzun lasterrak, bere izketa antzean diyo dala arrotza, ematen ditu arrazoi bikañak, bere atzian daudenak diyote siñaka eta iñilka buruba ez dakarrela garbi, alegiya choroa dala esaten dituen kontuen gatik.

Danak asi dira izketan guziyak nairik arrazoya, askok diyote iñilik egoteko gizon arri aditzeko, besteak ez lajatzeko izketan, eta onela guziya nastuturik eta zer eranzun geyago gizon arri jakin gabe, uzten dute bakarrik, esanaz burua mintsu arkitzen zayola.

Bai! au da Kolon bere jakintasun aundian zorotzat lajia....!



¿.....Zer gertatzenda itsasoan, zer dira deadar, irrintzi eta alaitasun orren indarra, zer dira Barzelonako kayean zabaltzen diran jende pill ayek, zer dira itsaso bazterrak estaliyak? Abo danetan itz bat besterik ez da aditzen; o! zer zoramena! guziyak itsasora begiratzen, eta barrenetatik ez da pozaren antsia besterik sentitzen. Gero, alako golpez gelditzen dan iñiltasun baten atzetik deadartzen dute ara non diran!! eta izate guzien begien parean azaltzen da ontzi aundi bat, bela guztiak zabalduan, bañan kalman, aurreratuaz geldi-geldirik.

O! zer senti du jende arrek! zer senti du Españiak, zerk poztu du istante batean mundu osoa!!

Zein dator ontzi artan, nondik dator, eta zergatik poztutzen da, berriz ere, lurraren jira guztia! !

Au gertatzenzan 1492 garren urteko urriaren goiz batean.

Ontzi artan zetorrena zan Kolon! Mundu zarrari beste berri bat ekarriaz zetorrena...!!



Fernando eta Isabel daude eserita beren tronu pean, alde batean jende argidotar leyalak, bestean echadiko nobleak, beste alde batian buruzai gerrari erneenak, bestean elizak dituen gi-

zonik sonatuenak, danaren erdian eta aunditasunez beterik dago gizon bat, eta bere oñetan guziyak umilki azalten dira!

Kolon aundia da gizon ori, mundu berri baten agertearen egillea, dago adiarazten guztiari eta erakusten erregeari eta ondorengo denari bere zentzu aundiak eman duben frutu ain naigarria.

Bai! ura zan Kolon, bide bakar batean zijoan gizon beartsu tristea, eguzkiaren kişkaltasunean; ura zan Kolon, konbentuko atean gelditu zan gizon penagarria, eskatuaz ogiya bere aurarentzat; bai! ura zan Kolon, mundua arritu bear zuben gizona izatearen gizaldi guzietan.

¡Doaia betiko Koloni, mundu baten jabe egintzan gizonari...!!



Nola ez bada gaur Euskaldun erriak, Amerikako agertearen IV garren eunkian oroitz bat donkitu!

Kolonizat, ber berak dionez, ziran chit ezautuak euskaldunak, zergatikan berak zion, Salamankako batzarrean, *euskaldunak zirala itsas-gizon yayuenak*.

Danak dakigu beren ontzian nola joantziran mariñel euskaldunak berekin batean. Danak dakite nola Amerikako agertean daudela izen euskaldun guztiz ernaiak.

¿Zertarako bada emen esan, erderaz esan dan ainbeste gauz? ala balitz nere lan au gertatuko litzake biurtza, eta nere biotzak ez du egin baizik euskaldun batek sentitzen duen arritasun aundia Kolon doaidunaren izenari.

FRANZISKO LOPEZ ALÉN.

